


Euskaraz bizi nahi dugu!

Geroz eta gertuago dago Euskararen Eguna, eta egun horretan egingo ditugun ospakizunetan "Euskaraz bizi nahi dut" kamisetak soinean janzteko deia egin nahi dizuegu guztioi. Aste honetan, kamisetak erosi ahal izateko zirkularra eman diegu ikasle guztiei, beraz egin zuen eskaerak datorren asterako! [Zirkularra](#).

euskaraz
bizi
nahi dut


COVID protokoloa

Aste honetan jakin dugu osasun larrialdia bertan behera gelditu dela, eta gaur izan dugu Hezkuntza Sailaren protokolo eguneratuaren berri. Gure desioen kontra, beste eremuetan eman diren neurrien lausotzeak ez du isladarik eduki hezkuntza-zentroetan. Ondorioz, ikasturtea hasi zenetik jardun dugun modu berean jardungo dugu datorren astetik aurrera ere. Epe laburrean bestelako albisteak ematea espero dugu.



Haur Danborra eta Jai Batzordea

Badirudi hain gureak ditugun festak berreskuratzeke aukera izango dugula aurtengo ikasturtean, eta prestaketa lanetan hasi ahal izateko, horien antolaketan parte hartzen duten batzordeak osatzeko jendea behar dugu. Haur Danborradako kideek [zirkular hau](#) prestatu dute, eta Jai Batzordeak ere lan-taldea birsortzeko beharra du. Zuen aletxoa jartzeko prest zaudetenok, bete [inprimaki hau](#). Izan ere, guztiok eman behar dugu pixka bat, gutxi batzuek dena eman ez dezaten.



Ategorrieta

Ategorrieta eraikineko lanak martxa onean doaz. Aste honetan ateratako argazki batzuk partekatu nahi ditugu guztiok, laster LHkoen etxea izango dena irudikatzen has gaituzen!



Zorriak bueltan

Aurten ere zorriak iritsi dira geletara, baita Bigarren Hezkuntzara ere! Asteburu luzea dugu aurretik, beraz, baliatu ditzagun egun hauek guztiok "garbi" itzul gaituzen! Apurtu dezagun katea!



Euskara Batzordearen bilera

Guraso-bileretan azaldu genuen moduan, Gurasoen Euskara Batzordeko bilera egin genuen atzo, eta partaide berriak gonbidatu genituen, guztion indar eta gogoia batu eta aurrerantzean egin beharreko lanaz hitz egiteko. Hainbat azipi-talde osatu genituen, eta datozen asteetan izango duzue hitz egindakoaren eta aurrera begirakoaren berri.



DBH4koak Flysch-ean

DBH 4-ko Biologia eta Geologiako ikasleok Zumaiaiko Flyschak aztertzeraz joan ginen asteazkenean, Euskal Herriko geologiari buruzko alderdi interesgarriak zuzenean ikustera. Bisita aprobetxatuz, marearteko ekosistema berezi honetan aurki daitezkeen bizidun ezberdinak bilatu eta ezagutu genituen!



OHARRAK / AGENDA:

- **HH2:** Guraso bilera. Urriak 25. [Txostena](#).
- **LH4C eta 5C:** Guraso bilera orokorrak. Hitzordu berria urriaren 14a, osteguna, 16:45ean
- **LH3:** Egunpasa Uliako ur biltegiara. Urriaren 13a, asteazkena.
- **LH4-5-6:** Okendoko Haur Txokora (LH4-5) eta Gazte Lekura (LH6) bisita gidatua. Urriaren 13an eta 20an.
- **Parketarrak:** Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean. [Informazioa](#).

itzuli

